



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP. KODEA 2022CONB0021
COD. EXP.

ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	HITZARMENAK
TITULARRA TITULAR	ANTONIO OTEIZA FUNDAZIOA
HELBIDEA DIRECCIÓN	AZKOITIA
NAN DNI	G20889689

AZKOITIKO UDALAREN ETA ANTONIO OTEIZA FUNDAZIOAREN
ARTEKO HITZARMENA

BILDU DIRA

Alde batetik, Sonia Vazquez Tejerina, Azkoitiko Udaleko Aisialdiko Batzordebua eta P-2001800-H I.F.K. zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean.

Bestetik, Juan Bautista Mendizabal (NAN 15.961.034-T), G-20889689 IFK . duen Antonio Oteiza Fundazioaren izenean

Bi alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa dutela, eta Antonio Oteiza Fundazioa eta bere ordezkariaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzarmenak izenpetzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan sartuta ez daudela adierazi ondoren, agertutakoek honako hau

ADIERAZI DUTE

I.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioko aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean eman ahaliko direla, betiere, diru-laguntza arautzen duen hitzarmenean eta diru-laguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua diru-laguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako diru-laguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikulua arabera aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, diru-laguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta diru-laguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

II.- Antonio Oteiza Fundazioa irabazteko asmorik gabeko fundazioa da, 2005eko urriaren 11an sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistro Orokorrean F-219 zenbakiaren inskribatuta dago.

III.- Antonio Oteiza Fundazioaren helburu nagusia Antonio Oteizaren obra artistikoa aztertu, zabaldu, sustatu eta ezagutaraztea, bai alderdi artistikoan, bai eta literarioan ere.

IV.- Lankidetzaz hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira Antonio Oteiza Fundazioaren gizarte eragina, fundazioaren finkatze maila, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

V.- Diru-laguntza hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko. Zehazki, Antonio Oteizaren 2022 urteko egitasmoa finantzatzeko erabiliko da.

VI.- Hitzarmen hau sinatzen da Azkoitiko Udalaren eskumenen egikaritzan, hain zuzen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.20 artikulua xedatutakoaren arabera.

VII.- Hitzarmen honen helburua Azkoitiko Udaleko aurrekontuan (indarrean dagoena) aurreikusitako diru-laguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da eta erakunde onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea.

Beraz, diru-laguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betetzeko, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

XEDAPENAK

LEHENENA.- Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2022. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza Antonio Oteiza Fundazioari ematea eta emate horren baldintzak arautzea, Antonio Oteiza Fundazioak aurkeztu duen programa aurrera eramane dezan: 2022 urteko egitasmoa, hain zuzen ere. Ondorioz, aipatutako programa sortutako gastuei aurre egiteko bakarrik erabili daiteke diru-laguntza.

BIGARRENA: Azkoitiko Udalak, Antonio Oteiza Fundazioari HIRU MILA EUROKO (3.000 euro) diru-laguntza emango dio programan aurreikusitako ekintzetarako, 2022eko udal aurrekontuko partida honetatik: 1.3100.481.336.00.00 diru-laguntza hau, ordainketa batean emango da, hitzarmena sinatu ostean. Horretarako, Antonio Oteiza Fundazioak dokumentazioa hau aurkeztuta izan behar du:

- 2022eko programa eta jardueren proiektua.
- 2022eko gastuen eta sarreraren aurrekontu zehaztua.
- Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia edota beste finantza iturririk ez duen ziurtagiria.

HIRUGARRENA:

- a) Aurkeztu den programa/proiektuaren baitan egiten diren ekitaldi guztietan adierazi beharko da Azkoitiko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, argitaratu daitezkeen publizitateetan, agerian utzi beharko da Azkoitiko Udalak



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- laguntza eman duela, "Azkoitiko Udalaren laguntzarekin" esaldia txertatuz Udalaren Logoarekin batera.
- b) Ekitaldi edo jardueraren berri eman beharko zaio Kultura Departamentuari hilabete lehenago (eguna, ordutegia, lekua, informazioa...).
 - c) Iragarkiak, ohar eta jakinarazpenak, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehentasuna emango zaio euskarari.
 - d) Ezingo da sexu edo arraza arrazoiengatik diskriminaziorik egin eta une oro errespetatu beharko da emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasun printzipioa.

LAUGARRENA:

Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, diru-laguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak. Gastu bat diruz laguntzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoa bete behar da, baita azpikontratatzeko 29. artikuluan eskatutako baldintzak ere.

4.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:

4.1.1.- Ez dira onartuko gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, ez badituzte betetzen legezko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko baldintzak.

Salbuespen izaeraz, zerbitzuak edo lanak egiten badituzte, noizbehinka, faktura egiteko egoeran ez dauden pertsona batzuek, baina legez eskatu dakizkien baldintzak beteta, fakturaren ordezkari onartuko da hartzaileak jaso izanaren agiri bat aurkeztea, zeinetan jasoko diren izen-abizenak, nortasun agiria (NA) eta kontzeptua. Onuradunaren gastu guztiak kontuan hartuta, ezin izango dute gainditu gastu guztiaren %25aren kopurua. Jaso izanaren agiri bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan 800€ baino handiagoa eta zenbatekoa 300€tik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Jaso izanaren agiria sinatu duenari Ogasunak erreklamazioren bat jarriko balioke, ezin izango zaio inolako erantzukizunik eratorri Azkoitiko Udalari; izan ere, Azkoitiko Udalak gastua egin eta ordaindu dela egiaztatu besterik ez du egingo, emandako diru-laguntza justifikatzeko bitarteko gisa.

4.1.2.- Bazkari, afari, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kostuak, kilometraje gastuak, ibilgailuentzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastuak edo antzekoak modu nabarian (eta egoki justifikatuta) aurretik identifikatuak izan behar dira aurkeztutako proiektuan. Edonola ere, behar den proportzionaltasuna gorde beharko dute egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helburuaren artean, zenbatekoa izan gabe entitatearen gastu guztien % 25 baino handiagoa.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

4.1.3.- Salbuespen izaeraz, justifikatzen zailak diren gastuak onartuko dira, zeinak ez duen beharko agiriz justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango onuradunaren gastu guztien %10 baino handiagoa.

2022eko abenduaren 31n amaituko da diru-laguntza erabiltzeko edo jarduerak egiteko epea. Aldiz, diru-laguntza emateko helburua bete duela zurrizteko eta jasotako diru-laguntza zertan erabili den justifikatzeko epea 2022ko otsailaren 28an amaituko da.

Justifikatzeko modua KONTU ERRAZTU bidez egingo da eta honako dokumentuak izango ditu:

- a) Justifikazio-kontuaren adierazpena Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- b) Jarduera memoria bat, diru-laguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituen.
- c) Jarduerak izan dituen gastuen eta sarreraren zerrenda sailkatua Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- d) Gastua justifikatzeko balio duten faktura, ordainagiri edo trafiko juridikoan frogatutako balioa duten beste agiriak onuradunak gorde beharko ditu eta Kultura Departamentuak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Hautaketa ausazkoa izango da eta onuraduna behartuta egongo da hautatu diren agiri original horiek aurkeztera.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezake berekin, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

BOSGARRENA: Diru-laguntza hau jaso ahal izateko aurreko ekitaldiko diru-laguntza zurriztuta izan behar du. Likidazioan ezingo da superabita eduki eta horrela suertatu ezker, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio Azkoitiko Udalari.

SEIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuak xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin, eta Antonio Oteiza Fundazioaren gainontzeko sarrerekin, beti ere udalari informatuta. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egora hori gertatzen bada, diru-laguntza murriztuko zaio Antonio Oteiza Fundazioari.

ZAZPIGARRENA: Azkoitiko Udala ez da arduratuko Antonio Oteiza Fundazioan lanean ari diren langileez eta Antonio Oteiza Fundazioa izango da langileekiko lan-harremanaren ondorioz sortutako lege alorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du Antonio Oteiza Fundazioak.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak onartzen dituela.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Era berean, izenpetzen duenak adierazten du Azkoitiko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak onespenez eman dizkiola eta datu horiek Azkoitiko Udalak baimendutako fitxategian sartzeko eta tratamendu automatizatua emateari baietza ematen diola. Gainera, sinatzen duenak aitortzen du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela eta ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatzen duenak baimena ematen dio Azkoitiko Udalari:

- Izaera pertsonaleko datu horiek udala kudeaketarako bakarrik erabiltzeko.
- Hitzarmen honen xede den diru-laguntza zuzen kudeatzeko garrantzizko den informazio guztia eskuratu ahal izateko beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Hitzarmen hau izenpetzen duenak aitortzen du argibide guztiak eman zaizkiola berak eman dituen datuak izaera pertsonaleko datuen eta babes digitaleko 3/2018 lege organikoak ezarritako moduan eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeke aukeraren inguruan.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra eta kasuari aplikagarria den gainontzeko araudia.

HAMARGARRENA: Administrazioako auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta elkarteak diru-laguntza kontura jasotakoa itzultzeraz behartuta egongo da, laugarren klausulan zehaztutako eran.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Sonia Vazquez Tejerina
Aisialdiko Batzordeburuak

Juan Bautista Mendizabal
Antonio Oteiza Fundazioko ordezkaria

KULTURA DEPARTAMENTUA – Tel . 943 857170 – kultu@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

ESKU6cf3f242-a89c-4ccf-ae90-bc9f123cbea6



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUdb1de0eb-513b-4440-93a9-ab9023050f80**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022CONB0021-HITZARMENA OTEIZA F./CONVENIO F. OTEIZA (ANTONIO)

Sinatzailea 1 / Firmante 1: SONIA VAZQUEZ TEJERINA - 44141335B
Data / Fecha: 2022/12/15 09:02:49



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU6cf3f242-a89c-4ccf-ae90-bc9f123cbea6**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>**